



5 **BIYAK BAT ELKARTEA**
Nagusien omenezko ospakizunez beterik, Biyak Bat elkarte

Biyak Bat elkarteak Lasarte-Oriako Udalarekin batera urtero antolatzen duen Nagusien Omenaldiko ospakizunak izan ziren larunbatean eta igandean. Larunbat arratsaldean igo zuten bandera egoitza kanpoaldean eta horrekin batera, ekintza ugariz beteriko bi egun igaro zituzten elkarteko kideek. Toka eta igel joko txapelketa, bingoa, kalejira eta herri bazkaria izan ziren asteburuan zehar egin zituzten ekintzetako batzuk. Giro bikainean igaro zituzten bi egunak.



Landaberri Ikastolako ikasle ohi talde batek, sorrerako urteak eta bizipenak ekarri zituen gogora, larunbateko antzerkian.

Landaberriren hastapenak antzeztuz

Ikastolaren lehen urratsak ekarri zituzten gogora, larunbatean.

8 **ANDALUZIAKO ASTEA**
Semblante Andaluz elkartearen XIV. aste kulturala

Lasarte-Oriako Semblante Andaluz elkarteak, XIV. aste kulturala ospatu zuen. Okendo Plaza izan zen elkarteko kideen elkar-puntu nagusia eta askotariko ekintzak egin zituzten asteburu osoan zehar. Ostiralean, kontzertua, larunbatean, haurrentzako jolasak eta musika emanaldia eta igandean aldiz, bazkari herrikoia, Jon Maia eta dantzaldi herrikoia izan ziren beste zenbait ekintza erakargarirekin batera, herrian.

Amaitu dira Landaberri ikastolaren urteurren ospakizunak, baina asteburua zehar ere, ekintza ugari izan dira herrian. Ostiral gauean, esaterako, 'Landaberri mende erdi' antzerkia ikusteko aukera izan zen. Ikastolaren lehen urratsak taularatu zituzten antzezleek.

Landaberri mende erdi antzezlanaz gozatu ahal izan zuten, larunbat gauean, Manuel Lekuona kultur etxera hurbildu ziren Landaberriko kide eta lagunek. Ikastolako lehen urteetan bizi eta gertatutakoak gogora ekarri eta ezagutarazi asmoz, antzerki atsegina taularatu zuten ikasle ohiek. Dozena bat lagun igo ziren oholza gainera eta ikastolaren lehen urratsetan eginda-

ko lanak, esfortzuak, kezka eta bizipenak azaldu zizkieten ikusleei. Guzti honekin batera, hasierako urte gogorrak ere gogora ekarri zituzten. Frankismo garaian ikastola sortzeko lanetan izandako oztopoak eta zailtasunak agerian geratu ziren, baita metodologia berriak euskaraz erabiliko zituen ikastola berri baten alde lan egindako guraso eta bolondres 'ausartek' egindako



Hamabi antzezle aritu ziren, oholza gainean Landaberriko bizipenak antzeztzen.

esfortzu guztiak ere, besteak beste. Ez ziren falta izan haientzako guztientzako esker hitz beroak. Ikuskizunaren amaieran, ibilbide

guzti honek jarraipen luze bat izan dezan, Landaberri osasuna opaz eman zioten agurra ekitaldiari, txalo zaparrada artean.



HIRIGINTZA

Etxe tasatuen zozketa urriaren 13an

Goiegi Ibarrean eraikiko diren 36 etxebizitza esleituko dira

Lasarte-Oriako Udalak ete Neinor Norte enpresak uztailen Goiegiko Ibarrean besteak beste, 36 etxebizitza eraikitzea hitzartu zuten. Herritarrek promozio honetan izena emateko aukera izan dute irailera arte. Eskatzaile kopurua dela eta, etxebizitzak esleitzeko zozketa egingo da.

Neinor Norte enpresak urriaren 13an, Goiegiko Ibarrean prezio tasatuko 36 etxebizitza libre eta dagozkien eranskinak adjudikatzeko zozketa egingo du: logela bateko 3 etxebizitza, bi logelako 15 etxebizitza eta hiru logelako 18 etxebizitza.

Etxebizitzek prezio tasatua eta udal-etxebizitza libreen izaera dute, Lasarte-Oriako Udalaren eta Neinor Norte, S.L.U. enpresaren artean sinatutako hitzarmenaren arabera.

Izen-emate zerrendak

Etxebizitza hauetako esleipendun izateko uztaila eta iraila

bitartean izena eman behar zen. Udalak aditzera eman duenez, udalerrian erroldatutako eskatzaileak salgai dauden etxebizitzak baino gehiago direnez, etxeen esleipena zozketa bidez egingo da.

Izena emandako erroldatuen behin-behineko lista Neinor Homes enpresaren www.neinorhomes.com webgunean eta Lasarte-Oriako Udalaren www.lasarte-oria.eus webgunean argitaratuko da urriaren 5ean.

Urriaren 6an lista horri buruzko alegazioak egin ahalko dira. Behin betiko lista 2016ko urriaren 10ean argitaratuko da.



Goiegi Ibarrean egingo diren etxebizitzaren irudia.

NEINOR HOMES

Zozketa

Prozesuaren legezotasuna eta gardentasuna bermatzeko, zozketa notario baten aurrean egingo da 2016ko urriaren 13an, 10:00etan, Lasarte-Oriako Manuel Lekuona Kultur etxeko hitzaldi aretoan.

Bonbo batean bola bat sartuko da izena emandako eskatzaile bakoitzeko. Zenbakia bat etorriko da egindako inskripzio-agindua egiterakoan emandakoarekin.

Bola bakarra aterako da. Zenbaki hori eta hurrengo 35ak izango dira zortekoak.

Esleipenaren lista ofiziala urriaren 14an argitaratuko da, bai udalaren bulegoetan, baita Neinor Homesen webgunean ere.

Aukeraketa

Lehenbiziko 12 esleituak urriaren 17an konfirmatu beharko dute hautatu duten etxebizitza, hurrengo 12ek urriaren 18an, eta gainerako 12ek urriaren 19an.

Bakoitzak 2 etxebizitza hautatzeko eskubidea izango du, 1 eta 2 lehentasun-ordenarekin. Ezarritako epean bere hautapena konfirmatzen ez dutenek galdu egingo dute hautatzeko eskubidea.

Erreserbako kontratua 10 laneguneko epean formalizatu beharko da, 2016ko urriaren 20tik azaroaren 4ra, biak barne.

Epea igarota erreserbako kontratua formalizatu ez bada, Neinor Homesek beste eskatzaile baten eskura jarriko du, dagokion txanda errespetatuz.

Esleitu gabekoak

Esleitu gabeko etxebizitzarik geratzen bada, zerrendan azken zenbakitik aurrera deituko zaie eskatzaileei.

Erroldatuek eskaintza betetzen ez badute, inskribatu gabekoen zerrendara pasako da. Esleipenaren hurrenkera inskripzio-unean emandako zenbakiaren arabera izango da.

Mugikorraren bitartez Udalaren Wifian izena eman ahal da

Lasarte-Oriako Udalak jakitera eman duenez, herritarrek alta eman dezakete Udalaren wifi sarean mugikorrarekin. Era honetara, udal-sarea erabili nahi duen herritarrek beste sarbide bat du eskura.

Udalak azaltzen duenez, honi esker, gaur egun, sarean sartu ahal izateko hiru bide dauka herritarrek.

Batetik, Udalaren liburutegiko bazkidea eta adinduna izatea eta eskaera zerbitzu horretan egitea.

Bestetik, e-DNI, IZENPE edo ONA txartela edota erabiltzailea identifikatuko duen beste edozein ziurtagiri digi-

talez baliatzea, Udaleko zerbitzu digitalen loturan: Administrazioko webgunea, Online zerbitzuak, Bestelako tramiteak eta kontsultak.

Horretarako, txartel-irakurgailua daukan ordenagailu bat eduki behar da. Udalak badauka mekanismo horretaz hornitutako kiosko bat udal-etxeke beheko solairuan.

Azkenik, auto-altako formularioa erabili dezakete herritarrek.

Etorkizuneko erabiltzaileak, konektatzeko erabili nahi duen ekipoaren bitartez, eskatzen zaizkion datuak bete beharko ditu eta bere izenean daukan telefono mugikor-

batzen zenbakia eskatuko zaio. Sistemak egiaztapen SMS kode bat bidaliko dio, zerbitzuan alta emateko. Legearen aurrean, mugikorraren titularrak izango da Udalaren wifi sarea erabiltzearen erantzule.

Wifi eremuak

Udalak gogorarazten duenez, Lasarte-Oriako udal-eraikin hauetan du eskuragarri Wifia: Udaletxea, Villa Mirentxu, Euskaltegia, Kiroldegia, Michelingo Kirol Guneko zelaia, Manuel Lekuona Kultur etxea, Gaztelekua eta Lan eta Zerbitzuetako Pabiloia.



Anitzen Sareko saio berria gaur

Lasarte-Oriako Udalak aniztasuna eta elkarbizitza sustatzeko lanean jarraitzen du. Anitzen Sareak ekimenak 2015 urtean eta 2016 urte hasiera bitartean gogoeta prozesua egin zuen herritar eta eragileekin batera.

Emaizta gisa, 2016 urtean garatzeko plangintza osatu zen. Honetan aniztasuna eta elkarbizitza sustatzeko lan-ildoak eta ekintzak zehaztu ziren.

Orain, Udalak azpimarratu legez, zehaztutako planifikazioa garatzeko unea iritsi da.

Bilera


Hori dela eta, aniztasuna eta elkarbizitza lantzeko plangintza aurkeztu eta ekintzak garatzen hasteko bilera bat egingo da.

Anitzen Sareko teknikariak aurreratu dutenez, bereziki bi gai jorrotuko dira saio honetan: Anitzen Sarearen parte hartzea Euskararen Maratoian eta estereotipoen kontrako kanpaina.

Hitzordua gaur, urriaren 3a, arratsaldeko 18:30ean da Villa Mirentxun.

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDALA

Laguntzailea



Txintxarri ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria

943 366 858/943 371 448

G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93

ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Maidar Azurmendi, Nerea Eizaguirre, Iñigo Gonzalez, Maddi Noriega.

txintxarri@txintxarri.eus

Publizitatea: Arantxi Zulaika
publizitatea@ttakun.eus

Laguntzaileak:

Unai Muñoa, Gorka Lasa, Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier Odrizola, Maidar Segurolo, Gorka Alvarez, Jexu Artetxe, Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Amadoz

KULTURA

Kultur ekintza ugari Manuel Lekuonan

Urriko egitarauan zinema eta Nagusien omenaldiko ekintzak dira nagusi

Oporretatik bueltan, Lasarte-Oriako Kultura sailak Manuel Lekuona kultur etxeko ikasturteari hasiera emango dion egitaraua aurkeztu zuen.

TXINTXARRI

Jesus Zaballos alkateak, Maite Iglesias Kultura batzordeburuak eta Manuel Lekuona kultur etxeko kudeatzaile Xabier Goitiak azaldu zituzten agerraldian Manuel Lekuona kultur etxeko urriko egitarauaren nondik norakoak.

Alkateak azpimarratu zenez, "ekitaldi asko antolatu dira eta bereziki, Nagusien omenaldiko ekintzak ditugu".

Urriaren 5ean, asteazkenean, ONCEko antzerki taldeak 'La soirée' lana eskainiko du eta urriaren 7an ostirala, Elvi bentrikoluaren emanaldia izango da.

Zinea

Zinema saioak hasiko dira igande honetan ere eta urriaren zehar, zinematan arrakasta handia izan duten filmak ikusi ahal dira. Haurren atalean, 'Ice Ace 5' animaziozko filma ikusiko dute txikiak eta helduek, berriz, 'Cuerpo de élite'.

Urriaren 9an, euskaraz 'Zipi eta Zape eta Kapitainaren irla' filma eskainiko da haurrentzat. Helduek 'Cafe Society' ikusiko dute. Urriaren 16an, 'Buscando a Dory' eta 'Ben hur' filmak izango dira ikusgai. Hilabetea amaitzeko, urriaren 30ean, haurrentzat 'Mi amigo el gigante' eta helduentzat 'Tarde para la ira' filmak eskainiko ditu Manuel Lekuonak.

Urriaren 14an, ostirala, Okendo Zinema Taldearekin batera martxan dagoen zine forumari hasiera emango zaio 'Gernika' filmarekin eta urriaren 28an, 'Al final del tunel' filmaz gozatu ahal da.

Haurren zinema saioetako sarreraren prezioa 3,80 eurokoa da eta heldu, zein zine forum saioetako prezioa 5,50 eurokoa da.

Xabier Goitiak azpimarratu legez, "zinema bonoak ere herritarren eskura daude". Bono bakoitzean hamar sarrera daude eta honako prezioetan daude: haurrena, 28 euro eta helduena, 45 euro.



Udal ordezkariak eta Manuel Lekuona kultur etxeko kudeatzaileak urriko egitaraua azaldu zuten.

Beste ekintzak

Baina bestelako ekintzarik ere izango da Manuel Lekuonan.

Urriaren 13an, asteartean, Iñaki Lopez de Luzuriaga herritarrek 'Euskaldunak eta karolingiar iraultza' hitzaldia eskainiko du.

Xabier Goitiak agerraldian azaldu modura, "liburu bat aurkeztu berri du gaiari buruz eta hori oinarri hitzaldia eskainiko du".

Hitzaldiekin jarraikiz, urriaren 25ean, asteartea, Gizarte Zerbitzuek antolatuta,

AGIFES Buru gaitasuna duten pertsonen eta senideen Gipuzkoako elkarteak izango da hitzaldi aretoa.

Haurrentzako antzerkiak ere izango du bere tarteak. Urriaren 15ean, larunbata, "zuzeneko musika, magia eta ezusteko ugari" aurkeztuko ditu 'Magia lapurra' antzerkiak. 5 urte baino gehiagoko haurrei zuzendua dago, "familian ikusteko aproposa". Euskarazko lana da eta 3,80 euro balio ditu.

Bestalde, urriaren 22 eta

23an Euskararen Maratoia izango da gure herrian eta honekin lotuta, urriaren 21etik 30era Antonio Mercero erakusketa gelan 'Lasarte-Oriako toponimia'-ri buruzko bitxikeriak ikasi ahal dituzte herritarrek.

Azkenik, Lasarte-Oriako historia oinarri duen liburu aurkezpena ere izango da urriaren 27an. Jose Luis Navarrok "Lasarte-Oriari buruzko dokumentu interesgarriak" aurkeztuko ditu 'Retazos II' liburuan.

Orfeón Logroñes, doinu ezagunez gozatzuz

Larunbata arratsaldean Ama Brigitarren komentuko kaperara hurbildu ziren herritarrek musika koralaz gozatu ahal izan zuten. Orfeón Logroñes abesbatzak abesti ezagunak taularatu zituen Diego Martinezen zuzendaritzapean.

'Oh! Brother' filmari esker ezaguna egin zen 'Down in the river' beltz espiritualaj eman zion hasiera kontzertuari.

Hau ez zen film bateko doinua entzun zen aukera bakarria izan. Kontzertuan aurrerago, 'Los chicos del Coro' filmeko 'Caresse sur l'océan'. 'El Principe de Egipto' animaziozko filmeko 'Cuando tú creas' edo 'La vida es bella' filmeko abesti nagusia ere eskaini zuen Logroñoeko abesbatzak.

Gaur egungo gipuzkoar musikagileei keinu eginez, Javier Bustoren 'Kanta Cantemus' doinua ere entzun zen kaperan.



Alboka abesbatzak gonbidatuta, Brigitarren Komentuan eskaini zuen musika emanaldia Logroñoeko abesbatzak.

Musikari handiak ere izan ziren egitarauan. Haendelen 'Lascia ch'io pianga', Pietro Mascagniren 'Ave Maria' edo Andrew Lloyd Webberren 'Pie Jesu' kantuek eliz musikaren doinuak erakarri zituen komentura. Atal honetan ere

sartu dezakegu 'Amazing Grace' doinu ezaguna.

Pop-ak ere izan zuen bere tarteak. Mundu osoan ezaguna den 'Stand by me' doinua, Mecanoren 'Hijo de la luna' abestia edo ABBA talde suediarren 'Siempre ABBA'

nahasketak dantzan eta kantuan jarri zituen komentuko kaperara hurbildu ziren herritarrek.

Larunbatean aurkeztutako egitarauko hainbat doinuetan bakarlarri lanak egin zituzten Paqui Bustamantek, Maria

Martínez de la Concepción-ek eta Olivia Berdoncesek. Laura Cabezón piano jolearen laguntza ere izan zuten.

Orfeón Logroñesek, 'Aurtxo polita' abestia eskaini zuen bis modura eta amaieran ederki eskertu zuten ikusleek Errioxako taldearen lana.

Elkartrukea

Orfeón Logroñes abesbatza Lasarte-Oriako Alboka Abesbatzak gonbidatua etorri da.

Herriko abesbatza apirilean joan zen Errioxara eta Orfeoiko kideek besoak zabalik hartu zuten, baita Sagasta Institutuko aretoa bildu ziren ikusleek ere.

Orain Errioxako taldearen bisita izan da. Alboka Abesbatzako kideekin batera, kontzertu oste paregabea izan zuten Semblante Andaluz elkartearen afari ederra dastatzuz.



Larunbat goizean, musika eskolako trikitilariak ibili ziren herrian barrena.



Belaunaldi ezberdinetako ikasleek argazkiak atera zituzten, Mitxelinen.



Belarriprest eta Ahobizi dantzan aritu zen zortzikotearekin batera,.



Ikastolako txikiak ere Mitxelinen izan ziren ospakizune egunean bazkaltzen.



Larunbat eguerdian, urteurreneko abestiaren bideoklipa grabatu zuten Landaberri BHI eraikin kanpoan.

Beste 50 urteren bila

Amaitu dira Landaberri Ikastolaren ospakizunak

Amaitu dira Landaberri Ikastolak bete berri dituen berrogeita hamar urteak ospatzeko antolatutako ospakizunak. Irailaren 19an eman zioten hasiera, larunbatera arte iraun zuen ospakizun egitarau luzeari. Askotariko ekintzak izan ziren igarotako astebru honetan ere urteurrena ospatzeko.

TXINTXARRI

Amaitu dira Landaberri Ikastolaren mende erdiko urteurrena ospateko antolaturiko ekintzak. Irailaren 19ean eman zioten hasiera ospakizunei eta larunbatean, Mitxelingo kirol gunean egindako bazkari eder batekin eman zioten agurra jai-egitarauari. Ekintza ugari beteta joan ziren ostiral eta larunbata. Ostiral gauean, 'Landaberri mende erdi' antzezlan eskaini zuten Manuel Lekuonan. Bertan, ikastolaren lehenengo urrats eta lanak ekarri zituzten

gogora. Orain berrogeita hamar urtetako bizipen erakusle izan zen ikuskizuna. Larunbatean berriz, eguerdi aldera hasi ziren ekitaldiak; 12:00etan izan zuten eguneko lehen hitz ordua ikastolako kideek. Urteurreneko 'Landaberri mende erdi' abestiaren bideoklipa grabatu zuten, Landaberri BHI eraikinaren aurrean. Ikastolako irudia zuten kamisetak soinean, pare bat entsaio egin eta txukun-txukun ekin zioten grabazioari. Ondoren, musika eskolako trikitilari gazteak herriko kaleetan barrena ibili ziren, kalejiran, eguna girotu

nahiean. Eguerdian, Mitxelingo kirol gunean eman zioten jarraipena festa egunari. Sorreraz geroztik, ikastolan ibilitako belaunaldi ezberdinetako kideek bazkari eder bat egin zuten bertan. Indarrak hartu ostean, sorpresaz beteriko ekitaldi berezi bat izan zen arratsaldean. Belarriprest eta ahobizi oholtza gainera igo eta zortzikoteak lagunduta, euskararen maratoiko dantza eskaini zieten bertaratutakoei. Honekin batera, guraso taldeko zenbait kide ere dantza ikusi ahal izan ziren ondoren eta azkenik, Ttiriki Tarraka taldeko trikitilarien doinuen laguntzaz, zenbait euskal dantzan aritu ziren guraso, ikasle, irakasle eta kide ohi. Eguraldiak asko lagundu ez arren, giro ezin hobea sumatu zen.



Landaberriko belaunaldi ezberdinetako jende ugari elkartu zen, larunbatean, Mitxelingo kirol gunean egindako bazkarian.



Larunbat arratsaldean, bandera igo zuten Biyak Bat egoitza kanpoaldean. Adela Manso lehendakariak hitz batzuk irakurri zituen.



Bote-johan, token eta igel-jokoan aritu ziren Isla Plazako etxe azpietan.

Nagusien omenez

Herriko adinduei omenezko ospakizun astea

**Lasarte-Oriako Biyak Bat elkarteak, Lasarte-Oriako Udala-
ren laguntzaz, Nagusien Omenaldi Asteari hasiera eman
zion, larunbatean. Ekintzaz betetako egitaraua izan da
asteburuan zehar eta hurrengo larunbata bitartean ere,
izango dira ekintza ugari.**

TXINTXARRI

Aurten ere, herriko Biyak Bat Elkarteak eta Lasarte-Oriako Udalak, Nagusien Omenaldi astea antolatu dute eta ekintza ugari izan dira asteburuan zehar, herrian. Larunbatean, Biyak Bat adinduen egoitzan, bandera igoerarekin eman zioten hasiera zazpi eguneko ospakizun asteari. Arratsaldeko 16:00etan, trikiti doinuek girotutako bandera igoerarekin batera, igel-jokoan, token, bote-jokoan eta bingoa aritu ziren elkarteko zenbait kide. Igandean berriz, eguraldi onak lagunduta, San Pedro elizan meza nagusia

entzun ahal izan zuten, goizean. Ondoren, elizako atarian zai zeuzkaten trikitilariekin batera, Manuel Lekuona Kultur Etxera joan ziren kalejiran. Bertan, Amaia Gonzalez Caballero dantza eskolako kideek, dantza eamanaldia eskaini zuten. Askotariko dantzak ikusi ahal izan ziren; pasodobleak, dantza mota ezberdinekin egindako fusioak eta sevillanak, beste zenbaiten artean. Dantza ikuskizunaren ostean, Mitxelingo kirol gunean elkartu ziren Biyak Bateko kideak. Bertan, bazkari herriko bat antolatu zuten. Guztira, 408 lagun elkartu ziren bazkarian eta horietatik guz-

tietatik, hamaika gizonezko eta hamar emakumezko izan ziren aurten laurogei urte betetzen dituztenen artean, omenduak. Gainera, mahai nagusi bat ere jarri zuten bazkarian. Bertan, Jesus Zaballos alkatea, Lourdes Acevedo gizarte zerbitzuetako lehendakaria, Luis Murua parrokoa Biyak Bat egoitzako lehendakari diren Exiquio Perez eta Adela Manso eta elkarteko bi kide nagusienak, Gregorio Garcia eta Martina Intsausti egon ziren. Amaitzeko, bazkari indarrak hartuta, 'Ruby Berriak' taldearen eskutik, dantzaldia izan zuten. Asteburuko ekitaldi hauekin guztiekin batera, datorren larunbata bitartean beste zenbait ekitaldi izango dira; gimnasia erakustaldiaz, ipuin-kontalariak, dantza lehiaketaz eta ibilaldi neurtuaz gozatzeko aukera ezin hobe izango dute.



Amaia Gonzalez dantza eskolako erakustaldia izan zen igande eguerdian.



Udal ordezkariekin batera, bazkari herrikoa egin zuten Mitxelingo kirol gunean.



PILOTA.-

Intza KE 22-4 Bergara: ezin zen gehiago eskatu

Jon Pello Artetxe eta Mikel Elolaren berebiziko garaipena ostiralean Loidibarrenen

Gipuzkoako Igo mailan mantentzeko beste urrats bat eman zuten ostiralean Intza KEko seniorrek. Jon Pello Artetxe eta Mikel Elolak osatutako bikoteak ez zien inolako aukerarik eman Bergarako pilotariei: 22-4.

INIGO GONZALEZ

Gorritz markatuta zeukaten ostiral iluntzeko neurketa Gipuzkoako 1go mailako Intza KEko seniorrek. Berebizikoa zen bi puntuak poltsikoratzea, eta hala egin zuten Jon Pello Artetxek eta Mikel Elolak. Nagusitasunez, gainera: 22-4 hartu zuten mendean Bergarako bikotea.

Landaberriren 50. urteurreneko bazkaria zela kausa, Michelingo pilotalekuan ez, Loidibarrenen aritu ziren bi bikoteak. Dezente hobea da Michelingo kantxa, eta ikusteke zegoen herritarren erantzuna. Dudarik baldin bazegoen, berehala uxatu zituzten Artetxek eta Elolak, lehen tantutik azkenera arte serio jokatu.

Intza KEko bikotea berehala aldendu zen markagailuan: ohartzetako, 5-1 hartu zuten aurrea. Taktika argia zen: Mikel Elola atzelariaren forma momentu gozoa probestu, eta jokoa atzeko koadroetara era-

man. Komeriak izan zituen atzelari bergararrak herritarren pilotakadak erantzuteko, eta Artetxek ez zuen barkatu aurreko koadroetan.

Begararrak saiatu ziren partidua orekatzen, 5-2 jarri ziren, baina ordutik aurrera ez zuten aukerarik eduki: 12-3 aurreratu ziren Artetxe eta Elola, eta 22raino akatsik egin gabe jarraitu zuten.

Ez zen gutxiagorako: irabaztea berebizikoa zen Intza KEko bikotearentzat. Urrats bat gehiago eman dute maila mantentzeko bidean. Dena ez daukate eginda, ordea; aste-buru honetan beste neurketa oso gogor bat jokatu dute, Billabonaren aurka.

Momentuz, baina, etxeko lanak oso ongi egiten ari dira lasarteoriatarak. Hiru partidu jokatu dituzte, eta bost puntu pilatu sailkapenean. Tantoen alde ere, oraingoz behintzat, oso positiboa da: 60 egin dituzte, eta 40 jaso. Jarrai dezatela horrela.



Jon Pello Artetxek eta Mikel Elolak partidu biribila jokatu zuten ostiral iluntzean Loidibarrenen.

3. mailako seniorrak

Larunbat goizean jokatu zuten norgehiagoka Lasarte-Oriako Loidibarren pilotalekuan. Zegamako Tartaloetxeren aurka aritu ziren jokoan Haritz Urkia eta Aritz Solano herriko pilotariak. Markagailuan atzetik geratu ziren ordea lasartearrak; 15 eta 22 galdu zuten. Denboraldia hasi zenetik hiru partidu jokatu dituzte eta horietatik bakarra irabazi



Loidibarren pilotalekuan jokaturako partiduen une bat.

TRIATLOIA.-

Trinko triatloi taldeko kideak, egurrean

Ikasturte berriari topera ekin diote Trinko Lasarte-Oriako triatloi taldeko kideek. Asteotako proba hainbatetan ikusi ahal izan da triatleten berde eta beltz koloreko buzoa.

Irailaren 25ean jokaturako Donostiako Onditz Oroitz triatloian, esaterako, lau taldekide hartu zuten parte: Imanol Arteaga, Mikel Olarra, Mikel Izagirre eta Andoni Salsamendik. 1,5 kilometro egin zituzten igerian, 40 bizikletan eta 10 korrika.

Arteagak 34. postua erdietsi zuen, ibilbidea 02:16:05eko denboran burutuz. Handik bederatzita minutura helmugaratu zen Olarra, 130. tokian. Izagirre 148. izan zen helmugan, 02:27:39ko denborarekin, eta 264. Salsamendi, ia 02:40 ordu eginda.

Astebete lehenagoko Usurbilgo Baxurde Krosean irteera ere animatu ziren zenbait

kide: Imanol Arteaga, Mikel Izagirre eta Mikel Olarra, hain justu. 28., 44. eta 49. izan ziren, hurrenez hurren. Ibilbidea 10 kilometrokoa izan zen.

Zumaia eta Donostia

Triatloi taldea martxoan aurkeztu zutenetik, gero eta kide gehiago ditu Trinkok. Horieta bat da Jon Presa gaztea.

Zumaia triatloian debutatu zuen, irail hasieran. Bera eta Mikel Izagirre aritu ziren proba horretan lehian. Maila ederra erakutsi zuten biak: Izagirre 114. izan zen, eta 223. Presa. 750 metro egin zituzten igerian, 20 bizikletan eta beste 5 korrika.

Azkenik, Enaitz Ibarburu Donostiako Badian aritu zen, enpresen arteko igerialdian.

Taldera batzeko interesa dutenek 695 74 33 00 edo 635 73 68 52 telefono zenbakietara deitu dezakete.



Ezkerrean, Imanol Arteaga, Onditz Oroitz triatloian. Eskuinean, Izagirre eta Olarra, Usurbilen (ezkerreko biak dira).



Ezkerrean, Presa eta Izagirre, Zumaian. Eskuinean, Enaitz Ibarburu (erdikoa), enpresen arteko igerialdian.



Agenda

Asteartero eta ostegunero, 15:30etik 17:30era, Emakumeen zentro zibikoa



Euskal jantziak egiten ikasteko aukera

Bihar Ttakun KEK antolatzen duen Jantzi tradizionalen ikastaroa hasten da. Honi esker, euskal jantziko gona, mantalak, alkandora, atorra, galtza... egiten ikasi nahi duten herritarrek aukera ona dute. Nahiz eta urriko ikastaroa bihar hasi, oraindik izena eman daiteke, baita azaroko tailerlean ere. Izen-ematea Ttakuneko bulegoan egin behar da. Ikastaroak 22 euro balio ditu Ttakuneko bazkideentzat eta bazkide ez direnek 25 euro ordaindu behar dituzte.

Ostirala, 19:00etan
Elvi bentrakoluaren emanaldiaz gozatu-ko dute.

LASARTE-ORIATIK
Osteguna, 11:00etan
'Ondo Ibili' ibilbide osasuntsua egingo da.

AMA BRIGITARREN KOMENTUA
Larunbata 8, 11:00etan
Meza izango da Biyak Bat elkarteko abesbatzak girotua. Aurretik Urrezko ezteiak ospatzen dituzten bikoteak kalejiran joango dira elkartetik.

Euritan ere jolasean!

VILLA MIRENTXU
Asteartea, 18:00etan
Bigarren tailer honetan, Lasarte-Oriako auzoetan eta parkeetan dauden lehen-tasuneko beharrak identifikatuko dira.

Lasarte-Oria

Zinea

MANUEL LEKUONA KULTU ETXEA

Igandea 9, 17:00etan

Haurren zinea atalean, 'Zipi eta Zape eta Kapitainaren irla' filma izango da ikusgai. Sarrera, 3,80 euro. Euskaraz.

Igandea 9, 19:30ean

Helduek 'Cafe Society' filma ikusteko aukera izango dute. Sarrera, 5,50 euro.

Nagusien Omenezko astea

KIROLDEGIA

Gaur, astelehena, 16:00etan

Gimnastika erakustaldia eskainiko du elkarteko taldeak.

BIYAK BAT EGOITZA

Gaur, astelehena, 19:00etan

Ipuin-kontalaria izango da.

Osteguna, 18:00etan

Dantza txapelketa egingo da. Izena ematea 17:00etan irekiko da.

Larunbata 8, 13:00etan

Urrezko ezteiak ospatzen dituzten bikoteek oroigarriak jasoko dituzte.

Larunbata 8, 14:30ean

Biyak Bat elkarteko urteurrena eta biko-teen urrezko ezteiak ospatzeko bazkaria izango da. Ostean, dantzaldia.

AMA BRIGITARREN KOMENTUA

Asteartea, 18:30ean

Biyak Bat elkarteko abesbatzak eta

Lezoko abesbatzak emanaldia eskainiko dute.

OKENDO PLAZA

Asteazkena, 16:30ean eta 17:30ean

Zumba eta lerroko dantzen erakustaldia egingo dute Biyak Bat elkarteko kideek. Eguraldi txarra eginez gero, Loidi Barren pilotalekuan izango da emanaldia.

Ostirala, 9:30ean

Ibilbide neurtua egingo da herrian zehar.

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Asteazkena, 19:00etan

Donostiako ONCEko Oroimenak antzerki taldeak 'La soirée' lana eskainiko du.

LANDABERRI-GARAIOETXEA

Osteguna, 18:00etan

Azken saioan, lehen-tasunak kontuan izanik, zein parke estali erabakiko dute herritarrek.

Usurbil

Jaiak

AGINAGA

Asteartetik larunbatera

Ekintza ugari antolatu dituzte San Praixku jaiak ospatzeko. Asteartean, San Praixku eguna izango da; ostegunean, Gazte eguna; ostiralean, haurren eguna eta larunbatean, gaupasa eguna izango da. Urriaren 7ko bertso-afaritarako txartelak 18 eurotan salgai alde aurretik, Aitzagan eta Arrate egoitzan

Herritarren txokoa

Neguko ordutegia kiroldegian

Neguko ordutegia dago indarrean herriko kirol instalazioetan.

Kiroldegiko guneak astelehenetik ostiralera 7:00etatik 22:30era erabili ahal dira. Larunbatetan 9:00etatik 20:00etara dago irekia eta igandetan berriz, goizean 9:00etatik 13:00etara.

Michelingo Kirol guneari dagokionez, astelehenetik ostiralera arratsalde egongo da irekia, 15:30etik 22:30era. Larunbatetan, berriz, egun osoz erabili ahal dira gune ezberdinak, 9:00etatik 20:00etara, eta igandetan goizez bakarrik 9:00etatik 13:00etara.

Alboka Abesbatza

Lasarte-Oriako Alboka Abesbatzak herritarrek taldearen parte izatera gonbidatu nahi ditu. Horregatik entsegu batera hurbiltzeko animatzen ditu.

Entseguak Arantzazuko Ama elizaren azpiko lokalean dira astelehen eta ostegunetan 20:00etan. Abesbatzako kide izan nahi duten 15 eta 55 urte

arteko herritarrek entseguetara gerturatu eta proba egin ahal dute "izan ere ez da zertan solfeorik jakin behar kantuan gurekin aritzeko".

Informazio gehiagorako 657 651 269 telefonora edota junta@albokaabesbatza.com helbidera idatz daiteke.

Sarean

Euskal ondarean murgilduz

Euskal ondarea ezagutu edo honetan gehiago sakondu nahi duten herritarrek hemendik aurrera ondarebideak.dss2016.eu webgunean dute aukera.

OndareBideak proiektuak, teknologia berrien arloan aurrerapausoa emanez, webgune interaktibo batean euskal ondarea bildu eta hura ezagutzeko modua jarri nahi du. Erakundeen arteko elkarlana

sustatzea eta, guztion artean, sare kultural osatu, indartsu eta aberats bat osatzea da proiektuaren helmuga.

Egun, 30 erakunderen funtsak biltzen ditu, eta 400.000 elementutik gora daude ikusgai (argazkiak, bideoak, artikulak, partiturak, kantuek, eskutitzak...), zenbait ibilbide edo erakusketatan antolatuta. Adibide gisa, 'AEE. Auñamendi Eusko Entziklopedia', 'Euskal hezkuntza. Andereino eta ikastolak' edo Donostiako Untzi Museoa ikusgai dagoen 'Emakumeak eta itsasoa' erakusketa dira ibilbideetako batzuk.

Baina proiektu honetan erakundeak ez ezik, herritarrek ere protagonista dira. Lehenengoek bilduma zein edukiak zabaldu ahalko dituzte webgunean. Herritarrek, aldiz, eduki berriak txertatu erakusketa digitalak egin eta beste herritar batzuek prestatutako erakusketak bisitatu eta haien gainean iritzia eman ahal dute. Horretarako orrialdean izena eman beharko dute.

Donostia 2016, Europako Kultur Hiriburuak sustatutako proiektua dugu hau, eta Elhuyar Fundazioak garatu du, EHUKo IXA ikerketa taldearekin eta Euskomedia Fundazioarekin batera.



Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:

Geltoki kalea, 4 943 37 14 48 txintzarri@txintzarri.eus



Semblante Rociero abesbatzak, Jon Maia bertsolaria gonbidatu zuen igandean, Okendo Plazan egindako emanaldira



Haurrentzako puzgarriak izan ziren larunbat goizean.

Andaluziako giroan

XIV. aste kulturala ospatu dute Lasarte-Orian

Asko izan dira asteburu honetan Semblante Andaluz Elkarteak antolatutako ekintzak. Asko izan dira baita ere, ekintza horietara guztietara gerturatu diren herritarrek. Haurrentzako jolasak, txapelketak, kontzertua, bazkari herrikoia izan dira, besteak beste, ostiralek igandera.

TXINTXARRI

Semblante Andaluz Elkarteak XIV. aste kulturala ospatu du asteburu honetan, Lasarte-Orian. Ostiralean, Manolo Solisen emanaldia izan zen iluntzean eta gauen aldiz, 'Amigos del Sur' musika taldeak, emanaldia eskaini zuen Okendo Plazan. Eguraldi txarra egin bazuen ere, izan zen euri azpian Andaluziako doinuak dantzatzera animatu zenik. Larunbatean, eguerdian hasi ziren ekintzak. 12:00etan, bote txapelketa egin zuten Okendon eta ordu erdi beran-

duago, etxeko txikiaren gozameneko, puzgarriak izan ziren. Bazkaltzeko tarte hartuta, arratsaldeko bostetan, dantza herrikoia antolatu zuten eta zazpitan berriz, 'Gitanillas y duendes' eta 'Zambra Zambra' taldeen emanaldia ikusi ahal izan zen. Bi talde hauek, andaluziako dantzen erakustaldia egin zieten ikustera gerturatu ziren herritarrei. Gauen, eguneko azken ekintza gisa, DJ Freddy izan zen. Igandean, egun osoan zehar izandako eguraldi eguzkitsua girotuta, emanaldi erakargarriak egin zituzten elkarteko

kideek. Eguerdian, 'Semblante Rociero' eta Xumela abesbatzek emanaldia eskaini zuten Okendo Plazan. Baina biek ala biek, izan zuten berezitasunik; Jon Maia bertsolariak abestu baitzuen bi taldeekin. Semblante Rocierarekin, Andaluziako doinu bati euskarazko bertsok jarri zizkion Maiak eta Xumelarekin aldiz, Karidadeko Benta musika taldearentzako sortutako letra bat abestu zuen. Lagun arteko giro atseginean igaro zuten eguerdiko tarteak. Emanaldien ostean, herri bazkaria egin zuten Okendon. Arratsaldean, 'Tala y su Banda' taldeak musika emanaldia eskaini zuen eta iluntzean aldiz, aurtengo XIV. kultura astea agurtzeko, dantza herrikoia egin zuten berriz ere plazan.



'Zambra Zambra' taldeak, dantza ikuskizuna eskaini zuen larunbat iluntzean.



Xumela abesbatzak, emanaldia eskaini zuen Semblante Andaluzen kultur astean.



Eguraldia lagun, jende ugari gerturatu zen igandean egin zuten bazkari herrikoia.



'Gitanillas y Duendes' taldek eskainitako emanaldiaren une bat.